

A small dog with floppy ears is perched on the horizontal bar of a stick figure. The stick figure is wearing a brown shirt with white polka dots and has its arms outstretched. The figure is positioned to the left of the main title.

TEILATUPEAN

Lur eta Dororen ametsa





SINOPSISIA

Lur gaztetxoak haserre ihes egin du gurasoenetik, bere etxea eraiki asmoz, bertan nahi duen guztia egin ahal izateko. Auzuneko orube batean **Doro** topatu du, munduko bazter guztiak ezagutzen dituen baina inon bizi ez den artista ibiltaria. Lau makil, kutxa pareta eta maindire soil batekin euren ametsetako etxea eraiki dute eta etxearekin batera, adiskidetasuna; oinarri sendoak izan arren, tarteka itute batzuk dituen, laguntasun guztien moduan.

Etxearen bueltan hainbat gai jorratzen ditu publiko familiarrari zuzenduriko antzezlan honek: adiskidetasuna, zaintza, etxebizitzaren arazoa,

migrazioa, marjinazioa, duintasuna, bizitza ereduen aniztasuna... Fantasiatzko munduak helduen errealitatearekin parez-pare topo egiten duen honetan, haurren ahotsa eta zilegitasuna agerian geratzen dira.

Bertsoak, koplak eta beste hainbat baliabide tartekatzen dira obra dinamiko eta jostari honetan, hala nola, txotxongiloak, argitzalen jokoak, objetuen manipulazioa, koreografiak... Ekintza eszenikoaren bidez, aipaturiko gaien inguruko galderak planteatzen zaizkio publikoari, hausnarketarako bidea irekiz.





FITXA ARTISTIKOA

- GIDOIA: Iraitz Lizarraga
- ZUZENDARITZA: Iraitz Lizarraga
- ANTZEZLEAK: Maren Basterretxea / Maite Aizpurua eta Uxue Alkorta



FITXA TEKNIKOA

- NORI ZUZENDUA:
Familiarra (5-11 urte moldagarria)
- ESPAZIOA: Oholtzan zein lurrean.
Espazio minimoa 7 x 5 m.
- LEKUAK: barrurako antzezlanak: kultur etxeak, antzokiak, eskolak...
- IRAUPENA: 55 min.
- MUNTAIA: emanaldia hasi baino
120 min lehenago iritsiko da.
- DESMUNTAIA: 30 min.
- AURREKONTUA:
1.480€ + BEZ (%10) antzokietarako eta kultur etxeetarako teknikaria barne
1.175€ + BEZ (%10) soinu-ekipoa gabe
1.275€ + BEZ (%10) soinu-ekipoa barne



MAREN BASTERRETxea (1995)

Arte Dramatikoko Goi Mailako tituluduna naiz; antzerki munduan lan esperientzia haundia daukat eta hainbat konpainiekin jardun naiz:

Bilbao Balioen Hiria proiektuan (Baleuko), *Miradas de carbon* laburmetraian (Esti Villa), *Lubaki Lainotsua* antzezlanean eta bitartekaritza arduradun gisara (Atx Teatroa), *Kotondarrak* (Anita Maravillas), *Alpistegia* eta *Urpekakariak* antzezlanetan (Lanku), eta *Igaro* antzezlan proiektuan.

Musika munduan ere hizkuntza musikalean, pianoan, panderoan eta trikitixan ikasketak ditut, baita Gasteizko Jose Uruñuela Dantza Kontserbatorioan Ikasketa Profesionaletako lehenengo bi ikasmailak burutuak ere.

MAITE AIZPURUA OLAIZOLA (1990)

Arte Dramatikoko Goi Mailako Tituluduna (Dantzerti), Soziologian Lizentziatua (EHU-UPV) eta Giza eta Kultur Antropologian lizentziatua (EHU-UPV).

Gaztetatik gizarte mugimendu eta feminismoan aritua eta heziketa informalean, aisialdian eta kultura parte hartzailearekin erlazionatutako proiektuetan egin dut lan 10 urtez. Egun antzerki zuzendari, interprete eta pedagogo gisa lan egiten dut, proiektu propioekin eta *Horman Poster Kolektiboa* eta *Metrokoadroka Kolektiboa* antzerki konpainietan.

Azken urteetan, arte-bitartekaritza proiektu hainbat kudeatu, diseinatu eta gidatu ditut elkarlanean, eta literaturan ere hastapenak egiten ari naiz 2024an argitaratuko den *Esnatze Basa* eleberri laburrarekin (*Geuretik Sortua* Egitasmoa).

info +: www.mao.eus

UXUE ALKORTA (2001)

Bertsolari zarauztarra naiz. Lehen Hezkuntzako Gradua ikasten jarduteaz gain, Aretxabaletako Lekaixoka Bertso Eskolako irakasle, ere, banaiz.

Azken lau urtetako udako oporraldietan aisialdi taldeetan aritu naiz hurrekin lanean, Gurutxurtu Aisialdi Taldean eta Heziby Aisialdi Elkartearen, hain zuzen ere.

Azken urtean gaztetxoetara eman dut salto Euskal udalekuetan eta Bertso udalekuetan lan eginez. Antzerkian lehen aldia da profesionalki aritzen naizela, halere, aitortu behar dut beti izan dudala gustuko oholtza gainean aritzea eta hurrekin jolastea.



KONTAKTUA

Marta Agirrezabala Zubillaga

Marketina eta Komunikazioa

marketina@lanku.eus

675716472 - 943 26 07 55

www.lanku.eus